

6.- Katiluzar Guraso Elkarteari diru laguntza zuzena onartzeko proposamena.

Elkartearen izena:	Katiluzar Guraso Elkartea
Diru-laguntza kopurua €:	1.500 €
Aurrekontu Partida:	1 01.481.01.334.00 2020
Aurrekontu baimendua:	AD- 17-2020

Diru-laguntzaren xedea eta azalpena:

Katiluzar Guraso Elkartearen helburua da, hezkuntza eskaintza indartzeko burutzen dituen hainbat jarduera ezberdin aurrera eramatea

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte-bakarra da.

2020ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Katiluzar Guraso elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2017-2019 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Hori horrela, HONAKOA ERABAKI DA:

1. Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Katiluzar Guraso elkartearen elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.
2. 1.500 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.
3. Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egingo da: diru-laguntzaren %80 (1.200 €) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (300 €) justifikazioa aurkeztean.

Ereñotzu, 2020ko otsailaren 10ean  
Sin. Unai Erroitzenea Gamjo, auzo alkatea

